



FUNTSEZKO SOZIJETATEAK

Gure kooperatiba zenbait bazkidez osatuta egongo da, alde batetik, "Berraktibatu +" programa gure ekintzen egitura nagusia moldatuko du. Programa honek ahalbidetuko du enpresen eta herritarren jasangarritasuna kudeatzea Bizkaian. Programa honen helburuetaz aparte, gure asmoa jaietan ematen ohi den plastikozko ontzien kontsumo masiboa murriztea da. Eta bestetik, Cicloplast sozietatearekin lan egingo dugu. Enpresa honek, plastiko sektorearen enpresa edo erakundeekin lan egiten du, bezeroari birziklapen prozesuaren segurtasuna bermatuz. Cicloplasten helburu nagusia zaborte-gira eramaten den hondakin kopurua murriztea da eta horretarako material plastikoaren eta energiaren prebentzioa eta birziklapena sustatzen lan egiten du. Gure plastikoa Cicloplasti saltzea erabaki dugu, modu honetan, plastikoaren kudeaketa hobeago bat ziurtaraziz.



Horrez gain, GAP GKE-aren bitartez plastikoaren erabilera txarraren kontzientziazioa lortuko dugu, gure produktua erakunde honi aurkeztuz nolabaiteko publizitatea suposatuko luke, baldin eta onartzen badigute proposamena. Elkarren arteko adostasunez bai guk bai haiek onuradun aterako gara.

Baina, ezer baino lehen, gure proiektua aurrera eramateko Leasing enpresa batekin jarri behar gara harremanetan, enpresa horrek hornituko baitgaitu (makinak eraikiko ditu). Guztira hogeit hamar makina eskatuko dizkiogu enpresari. Bestetik, Metro Bilbao-rekin ere harremanetan egon beharko gara. Izan ere, edalontziak birziklatzeagatik jasotako dirua (bost zentimo) barik txartela erre-kargatzeko izan daitekela adierazi dugu hasieran. Beraz, kontsumitzaileek aukera hori izan dezaten, Metro Bilbao-rekin akordio batera heldu behar gara.



FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gurekin lanean arituko den beste bazkide bat Eroski izango da. Aurretik esan dugu, kontsumitzaileak birziklatzera bultzatzeko sari bat eskainiko dugula (bezeroekiko harremanetan azaldu dugu). Saria Eroskik eskainiko du (Eroskin erosteko deskontuak). Guk ordainetan, publizitatea egingo diogu Eroskiri, gure aplikazioa, webgunea eta makinaren pantaila digitala erabilia.



Banaketa kanalean aipatu bezala, makinak zenbait entitatei alokatuko dizkiegu (Getxoko udala, kirol taldeak...). Entitate horietako bat BEC-a izango da. Gure makinak, bertan antolatzen diren ekimenetan erabiliko dira: jaialdiak, kontzertuak...

Gure azkeneko bazkidea Lantegi Batuak izango da. Lantegi Batuak garraiolari lana egingo du. Jada esan dugu makinak gure biltegitik eskaria egin den lekura joateko ezinbestekoa zaigula garraiolari bat. Lan horretaz arduratuko da Lantegi Batuak. Era berean, makinaren arduradunak Lantegi Batuko langileak izango dira .

- REACTIVATE + PROGRAMAREN AZALPENA →
<https://www.bizkaia21.eus/interior.asp?idpagina=38&idioma=ca>
<https://reactivemas.eus/programa-reactivate-y-entidades-socias/#entidades>
<https://aclima.eus/en/programa-reactivate-para-el-fomento-de-la-participacion-ciudadana-a-favor-de-la-sostenibilidad-ambiental/>
- GAP ONG
<http://programagap.org/>
- LANTEGI BATUAK
<https://www.lantegi.com/es/contacto/>